

EUSKARAZ HITZ EGIN NAHI AL DUZU?

(http://dobera.com/artikulua-ikusi.php?id=107)



(http://hernanikokronika.tumblr.com)

(/)

- [HERNANI \(/albisteak/hernani/\)](#) [GOIZUETA \(/albisteak/goizueta/\)](#)
- [ARANO \(/albisteak/arano/\)](#) [EREÑOTZU \(/albisteak/erenozu/\)](#)
- [ASTIGARRAGA \(/albisteak/astigarraga/\)](#)
- [Albisteak \(/albisteak/hernani/albisteak/\)](#) [Elkarrizketak \(/albisteak/hernani/elkarrizketa/\)](#)
- [Jasota Bezala \(/albisteak/hernani/jbezala/\)](#) [Bereziak \(/albisteak/hernani/sberezia/\)](#)
- [Dokumentuak \(/albisteak/hernani/dokumentua/\)](#) [Eskelak \(/eskelak/\)](#) [Agenda \(/agenda/\)](#) [Bideoak \(/bideoak/\)](#) [Argazkiak \(/argazkiak/\)](#)

Publizitatea (/static/pdf/publizitatea.pdf/)	Bazkide egin (/albisteak/hernani/bazkide-egin/)	Bilatu (/static/pdf/publizitatea.pdf/)
Publizitatea (/static/pdf/publizitatea.pdf/)	Bazkide egin (/albisteak/hernani/bazkide-egin/)	Bilatu (/static/pdf/publizitatea.pdf/)



(http://www.euskadi.net/albisteak/albisteak/2015/01/06/5d68c11...)

albisteak//TXOTX DENBORALDIA

Ana Urrutia eta Andoni Aizpuruk irekiko dute txotx denboraldia, igandean

ETBko Eguraldia saioko lantaldea omenduko dute aurten. Txotx irekiera 12:30etan izango da Gudarien plazan. Bazkaria Itxas-Burun egingo da eta txartelak Biterin egongo dira salgai bihartik.

HERNANI
2015/01/06 00:00 Asteartea

Eguraldia sagardoaz ordezkatu, eta txotx denboraldia iragarriko dute igandean, Ana Urrutia eta Andoni Aizpuruk ETBko Eguraldia saioko kideek. Irekiera ekitaldia 12:30etan izango da Gudarien plazan. Omenduek egingo dute aurreneko tragoa eta ondoren, nahi duenak izango du aurtengo sagardo berria probatzeko aukera.

Egun osoko festa

Irekiera ekitaldia eguerdian izango bada ere, festa, egun osoan zehar antolatu dute. Suziriak botako dituzte 11:00etan eta segidan, Apaxi ipuin kontalariak girotuko du udaletxeko arkupea. Ondoren, trikitilari, Kalez kale kantari eta txalapartarien txanda izango da.

Urtero bezala, bazkaria ere egingo da sagardotegian. Aurten, Itxas-Burun antolatu dute. Eta arratsalde partean, erromeriaz gozatzeko aukera izango da.

Bazkariko txartelak, bihartik

Itxas-Buru sagardotegiko bazkaria irekia da eta nahi duenak du joateko aukera. Txartelak 20 euroan daude eskuragarri, Biteriko turismo informazio bulegoan (08:00-15:00). Bihartik ostiralera bitarte egongo dira erosgai. Bestalde, Itxas-Burura joan-etorria autobusez egiteko aukera izango da. Autobuseko txartela autobusean bertan ordaindu beharko da.

Gaur	Bihar	Etzi
12°	13°	15°
6°	6°	4°

(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)
(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)Aemet (http://www.aemet.es) eskainitako datuak

ASTIGARRAGA

(/m/aldizkaria/378/pdf/Urtarrilak%207%20Astigarraga%202015.pdf)

Urtarrilak 7

HERNANI

(/m/aldizkaria/None/pdf/Urtarrilak%207%20Internet.pdf)

Sagar Lasterra, Sagar Martxa...

Txotx denboraldia lau hilabetez luzatuko da, apirila bukaera arte, hain zuzen. Eta denboraldiaren barruan, beste hainbat ekintza ere izango dira Hernanin, urtero bezala. Otsailaren 28an, Sagar Lasterra herri lasterketa egingo da bederatzigarren aldiz. Sagardotegien ibilbidean zehar, 9 kilometro inguru egin beharko dituzte korrika. Izen ematea laster irekiko da. Martxoaren 15ean, berriz, Tolarea Sagardo Naturalaren Kofradiaren Kapituluak izango da. Eta apirilaren 12an, seigarren Sagar Martxa, egun erdiko ibilia.

Eskaintza zabala, turismoari begira

Turismo aldetik ere eskaintza zabala antolatu du Udalak. Otsaileko, martxoko eta apirileko asteburuetan, lau aukera hauek izango dira: turismo informazio puntua irekia (larunbatetan eta Ostiral Santu egunean 10:15-14:15/16:30-19:30; igandetan 11:00-15:00); bisita gidatuak hirigune historikoan; pakete turistikoa (bisita gidatua hirigunean+tren berdean sagardotegira+sagardo dastaketa sagardotegian+tren berdean herrira); eta esperimentzia (aipatutako paketea+bazkaria sagardotegian).

EGITARUA

Igandean, txotx denboraldiaren inaugurazioa Gudarien plazan.
11:00 Suziriak eta Apaxi ipuin kontalaria. Udaletxeko arkupean.
11:00-11:45 Trikitilariak, herriko kaleetan.
12:00 Kalez kale kantari. Plaza Berritik abiatu eta kalejiran Gudarien plazaraino. Txalapartariak udaletxeko arkupean.
12:30 Txotx irekiera, Gudarien plazan.
14:30 Bazkaria, Itxas-Buru sagardotegian.
18:30-20:30 Erromeria, Plaza Berrin (eguraldi txarra bada, Atsegindegin).

Sartu

Tweet 1

Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Bidali

Aurreikusit

Azken argazkiak (/argazkiak/)



Pasarela Hernani 2014



Ergobiako festak (igan...

Azken bideoak



David Fernandez - CUP Alderdia



Budyren hitzaldia



Astigarragan, zaharrei omenaldia

Urtarrilak 7

Tweets

Follow

K Urumeako Kronika @KronikaNet 6m
Aquariumean emanaldia, gaur #hernani #ozenkiabesbatza #aquarium dlvr.it/82KYCg

K Urumeako Kronika @KronikaNet 6m
100 argazkitik gora ikusgai, gaurtik #hernani #FotoForum #erakusketa #Biteri dlvr.it/82KWGT

K Urumeako Kronika @KronikaNet 1h
Bazkariko txartelak, salgai #hernani #txotx #Itxas-Buru dlvr.it/82Hqk1

K Urumeako Kronika @KronikaNet 1h
Iaz bezala, odola ematera herritar ugari gerturatzea espero dute gaur #hernani #odolemaileak dlvr.it/82Grsw

K Urumeako Kronika @KronikaNet 1h
Bilerak auzoz auzo, 2015eko

Tweet to @KronikaNet